



**EUSKO  
IKASKUNTZA**  
Asmoz ta Jakitez

## EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

### 3. PROPOSAMENAREN ARRAZOTIAK

#### 3.1. Hautagaia aurkezteko arrazoiak (bere ibilbidea, euskal kulturarekin konpromiso eta ekarpen nagusiak, dibulgazio lanak, eremu akademikotik kanpo duen eskarmentua...)

Xabier Amurizak hainbat lan egin du euskal kulturaren, horietako batzuk hauek dira:

Lehenbizi azpimarratu behar da 80 hamarkada hasieran bertsoak modernizatu zituela, ordura arte zetorren tradizio aberatsa oinarri gisa hartuz, kantatzeko eta egiteko era berriaren bertsolari adierazgarriena izan baitzen, aro berriari hasiera emanez. Harrezkero, Amurizak emandako hasierako bultzadari esker neurri handi batean, bertsolaritzak loraldi izugarria izan du.

Halaber, bertsolaritzarekin loturik, hasierako bultzada indartsuaz gain, hurrengo hamarkadetan ere lan emankorra izan du, batetik bertso-eskolak bultzatuz eta bestetik bertsolarien lana elikatzeke ekoizpen ugari eginez. Bai bertsogintzan, bai bertso-doinugintzan, bai bertso-errimatan, bai kantatzeko eran. Eduki duen eragina izugarria da, Euskal Herri osoan zehar ibili baita bere bertsoa zabaltzen.

Gainera, bertsolaritzaz gain beste genero batzuk ere landu ditu, hala idazle moduan nola abeslari gisa. Hainbat argitalpen ditu: eleberririk, azterlanak, diskak eta grabaketak.

Arrazoi zerrenda osatzeko esan behar da oraindik ere Xabier Amurizak aipatutako lanetan jarraitzen duela, 77 urte bete dituelarik, eta gutxi dela argitaratu duela bere azken nobela "Neska bat leku inposiblean".

#### BIDALI DEN DOKUMENTAZIOA:

- ✓ Aurkezpen eskutitza
- ✓ Curriculum Vitae
- Hautagaiaren argazkia
- Beste (egon ezker)

#### Tokia, data eta sinadura

Lizarra, 2019ko abuztuak 8

# Xabier Amuriza

---

Etxanon (Amorebieta-Etxano) Torreburu baserrian 1941eko maiatzaren 3an jaiotako bertsolaria, idazlea, itzultzailea eta ikerlaria.

1965ean, behin Zornotzako karmeldarretan eta Derion ikasketak egin ondoren, abade ordenatu zen. Gizaburuagako eta Amorotoko parrokoa izan zen, errepresioaren aurka eta euskal kulturaren berpizkundearen aldeko Gogor izeneko abadeen mugimenduan parte hartu zuen frankismoaren garaian.

Derioko seminarioan abadeen itxialdi bat zela eta atxilotu egin zuten hilabete osoa espetxean igaroz; geroztik Bilboko Gotzaindegiaren gose-greban bigarrenez atxilotu zuten eta espetxeratu ere. Oraingoan Zamora eta Basauriko espetxeetan sei urte baino gehiago eman zituen atxilotuta. Geroago, Herri Batasunetik (H.B.) Bizkaiko batzarkide izanez koalizio horretako hautetsiek Espainiako Erregeek Gernikako Batzar Etxera egin zuten bisitaldiaren aurrean egin zuten protestagatik beste bi hilabeteko espetxeratze aldia igaro behar izan zuen. Abadetza 1976an bertan behera utzi zuen, ezkondua eta alaba baten aita, Berrizen bizi da. Gainera Bizkaiko batzarkidea izan da eta Vitoria-Gasteizeko legebiltzarrean legebiltzarkidea ere.

Bertsolaritzari eta euskal kulturari egindako bere ekarpena, oro har, ikaragarria da, bertsolaritzaren eremuan aurrendari izan ez baldin bada elementurik garrantzitsuenetariko bat izan ez den arlorik ez egonaz. Bertsolaritzaren irakaskuntzan, errepentismoaren garapen-formetan, plazaratzeko era desberdinetan bere ekarpenak bertsolaritza modernoaren erreferentzia-gune ukaezin izatera eramanez bakarrik ez eze itu jakin bat ere ezarri du, askorentzako artea den honetan garai-aldaketa ekarriz.

Bertso-zaletasuna bere senditik eta bere jaiotze-baserritik zetorkion, eta seminarioan eman zituen hamahiru urtetan euskaldun mundutik at zen giroan bizi izanak ere ez zuen Amuritzaren bertsoetarako grina ahultzerik lortu, ezkutuan bertso liburuak irakurtzen baitzituen seminariokidea zuen Abel Muniategirekin batera jardunaz.

Era "ofizialean" bere kide horrekin estreinatu zen, 1966an abade ordenatu ondoren. Abade-bertsolari lehen aldi horretan Bizkaiko herrietatik zebilen bere sotana eta guzti. Bertsolarien lehiaketa eta jardunaldietan epaimahaikide izan zen. Xalbador olerkaria txistukatua izan zen 1967ko Nazio Txapelketan, epaimahaikideetariko bat izan zen.

Espetxean zen urteetan, idatzitako bertso asko osatu zituen, arlo horretan gerora sari asko lortuz, adierazitako atal horretan, jakina, ezinbesteko erreferentzia izanez. Baina urte horietan batez ere bertsolaritzaren ikasketarako metodoetan, berezkotasunez jantzitako bertsolariaren mitoa birrintzera zetorrelako eta bertsoen tailer-eskolei atek zabaltzen zizkieten neurrian gerora iraultza txiki bat ekarriko zuen ekimena izanik, jardun zuen.

Hogeita hamabost urte zituen espetxetik irten eta bertsolaria izateko erabakia seriotasunez hartu zuen aldia. Urte gutxien buruan, 1980an, Bertsolarien Nazio Lehiaketa ospatu zen, 1967tik antolatzen zen lehendabizikoa. Txapelketara aurkeztu eta irabazi bakarrik ez ezik edukian eta formetan aldaketa baten hasiera eta abiapuntua ezarri zituen. Euskara batuan abesten zuen, bertsoa garatzeko era bestetarikoa zen, bere lengoaia, bere irudi literarioak, metaforak, neurriak... mundu horretan iraultza ekarri zuten. Aldaketa hori ez zuten guztiak onartzen edo partekatzen, eta garai horretan askorengandik laidoztatua izan zen.

1982. urtean berriro erakutsi beharra izan zuen, berriro ere nazio mailako txapeldunaren txapela irabazi zuenean. Geroztik 1986koan parte hartu zuen eta 1987ko Araba-Bizkaian ere, hirugarren eta bigarren geldituz hurrenez-hurren. Faringe ebakuntza batek hurrengo txapelketetatik urundu egin zuen.

2016an, 75 urte bete zituenean, jendaurreko bertsoak kantatzeari utziko ziola iragarri zuen. Idazten jarraitzen du, ordea. Azken aldian “Neska bat leku inposiblean” nobela argitaratu du eta musikarientzako letrak idazten ari da.

## Txapelketak

---

- Bertsolari Txapelketa Nagusia:
  - Txapelduna (2): 1980, 1982.
  - Hirugarrena (1): 1986.
  - Finalista (3): 1980, 1982, 1986.

## Idazlanak

---

### Bertsolaritza

- *Laurehun herri, mila bertso berri* (1982, AEK-Elkar).
- *Harri eta irri* (1985, Elkar).

### Biografia

- *Enaz banaz*, autobiografia (1999, AEK - Bertsozale Elkarte).
- *Vulkanoren atzamarrak: Rufino Arrola* (2002, Euskal Herriko Trikitixa Elkarte).

### Itzulpena

- *Bai mundu berria* (1971, Kriselu-Lur). Jatorrizko testuaren egilea: Aldous Huxley.

### Narrazioa

- *Agur sagar beltzaran* (2001, Bertsolari).

## Eleberria

- *Hil ala bizi* (1983, Elkar).
- *Oromenderrieta* (1984, Elkar).
- *Emea* (1985, Elkar).
- *Joan ziren zikloa*:
  1. *Dinosauroak horizontean* (2007, Xabier Amuriza).
  2. *Orain ezin naiz hil* (2008, Interneten eskuragai).
  3. *Olatu bat kuartelen gainetik* (2009, Lanku).
- *Neska bat leku imposiblean* (2018, Elkar)

## Poesia

- *Menditik mundura* (1977, Egilea editore).

## Saiakera

- *Zu ere bertsolari* (1982, Elkar).
- *Bertsolaritzaren historia* (1996, Orain).
- *Euskara Batuaren bigarren jaiotza. Osoa, leihakorra, nazionala* (2010, Lanku)
- *Zazpi ebidentzia birjaiotzarako* (2012, Lanku)

## Diskografia

---

Xabier Amurizaren olerkiak hainbat abestiren letra izan dira:

- *Mendian gora haritza*. Imanol Larzabal, 1982
- *Euskal Herrian Euskaraz*. Oskorri, 1984
- *Furra furra*. Oskorri, 1984
- *Mende lauren bat*. Mikel Urdangarin, 2007